

ULISES ZUHURRAREN PAIRAMENAK

+14

ULISES

Homero

Juan Kruz Igerabide egokitzaile

“Gure klasikoak”, Erein, Donostia, 2000

Erein argitaletxeak, “Gure klasikoak” bilduma berriari hasiera emateko, obra esanguratsu bat aukeratu du: Homeroren *Odisea* lan klasiko bezain ezaguna.

Liburu horrek, ordea, jatorrian ahozko tradizioari zegozkion kontakizunak biltzen ditu, eta zenbaiten aburuz Homerok lehenago herriaren ahotik jasotakoa birsortu besterik ez zuen egin; eta ahozko poema epiko luze hori idatziz jaso zen gero. Obra horren edukia prosaz eman izan da orobat, bertsio askotan, horietako bat 1985ean Santi Onaindiak bizkaieraz egindakoa, jatorrizko kantuen egitura errespetatuz, baina hitz lauz. Eta prosazko bertsio horietako batzuetatik abiatuta, Juan Kruz Igerabidek egindako egokitzailearen hitzetan: “Iana egiteko, zati asko egokitu ditut, pasarte asko laburtu, begien aringarri, gozamenaren lagungarri”.

Edozein egokitzailearen baloratzeko orduan, helburuei erreparatu behar zaie, norentzat eta zertarako egokitu ote den, alegia. Eta, kasu honetan, irakurle gazteei testu klasiko luzeak hurbildu nahi zaizkienez gero, oso bide egokia iruditzen zaigu Igerabidek aukeratutakoa: kantuen egitura eraldatu, eta hari narratiboari jarraikiz kapitulutan banatutako “nobela” itxura eman dio. Emaiz erraz irakurtzen da, eta irakurlea Ulisesen pairamenean partaide bihurtzen; izugarrikeriek eta zenbait pertsonaien kupida faltak kristautasunaren aurreko kultura baten barrena abiarazten dute; eta irakurleak hurbil sentitzen ditu liburu mitoak, mass-medietan hainbeste bider errepikatuta ikusi baititu.

“Gure klasikoak” bilduman iragarrita dauden beste titulu batzuk ere ez dira makalak: Metamorfosiak, Testamentu Zaharreko istorioak, eta Mila eta bat gau. Ederra asmoa eta, lehen liburu honen kasuan behintzat, txalogarria emaitza.

Manu Lopez Gaseni